



I. LEHIAKETA ARTISTIKOA “ARTE EGUBERRIAK EGUESIBARREN”

OINARRIAK

1. Xedea:

Lehiaketa honetan, poliestireno zuriko 940 x 940 x 1570 mm-ko zuhaitzak apainduko dira, gabonetako apaingarriekin, eta ibarreko hainbat establezimendutan jarriko dira.

Teknika librea da, baina ur-pinturak, disolbatzailerik gabeak, akrilikoak, tenperak, ur-oinarriko espraiak edo antzekoak erabiltzea gomendatzen da. Artistak nahi duen edozein elementu apaingarri gehitu ahal izango du. Parte-hartzaileek kontuan izan behar dute zuhaitzak kalean erakutsiko direla, eta pintura edo dekorazio-material mota honen akaberaren eta iraunkortasunaren arabera aukeratu beharko dute. Zuhaitza gainazal osoan apaindu beharko da.

2. Parte-hartzaileak:

Eguesibarren erroldatutako eta 14 urtetik gorako edozein artistak (profesionalak edo amateurak) parte hartu ahal izango du. Artisten elkarteek ere parte hartu ahal izango dute.

3. Betebeharrak:

Parte hartu nahi dutenek zirriborro bat eta curriculum edo ibilbide artistiko labur bat aurkeztu beharko dituzte. Epaimahaiak horien artean kopuru jakin bat aukeratuko du, eta sortzaileek zirriborroak egikaritu beharko dituzte Udalak eskura jarriko dizkien zuhaitzetan.

Aurkeztutako zirriborroek jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan behar dute, eta ezin dute hirugarrenen jabetza intelektualean eragin, hala nola markak, patenteak, egile-eskubideak edo bestelakoak.

Lehiakide bakoitzak zirriborro bakarra aurkeztu ahal izango du.

Gaia Eguberrietakoa izango da, eta epaimahaiak gai hori betetzen ez duten zirriborroak baztertzeke aukera izango du.

Zirriborroen formatua librea izango da, eta eskuz, digitalki edo eskalako erreplika bat aurkeztu ahal izango da, besteak beste, baina ahalik eta ongien egokitu beharko dira zuhaitzaren amaierako dekoraziora.



4. Aurkezteko epeak eta modua:

Proposamenak aurkezteko epea azaroaren 19an amaituko da, 18:00etan. Izen ematea web-orrian horretarako prestatutako formularioaren bidez egingo da (<https://valledeeguesparticipa.com/participa/i-certamen-artistico-navidades-con-arte-i-lehiaketa-artistikoa-gabonak-artearekin/>).

Beharrezkoa da formularioa betetzea eta proposatutako zirriborroa eta curriculuma edo ibilbide artistikoaren deskribapena eranstea.

Aurkeztutako material guztia Eguesibarko Udalaren ardurapean geratuko da, eta ez da itzuliko.

5. Epaimahaia:

Epaimahaia sektoreko profesionalak eta adituek eta kultura eta merkataritza arloetako zinegotzi delegatuak osatuko dute. Kultura-teknikariak idazkari lanak egingo ditu, hitzarekin baina botorik gabe.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da. Epaimahaiak eskubidea izango du lehiaketa esleitu gabe uzteko, baldin eta, bere iritziz, aurkeztutako zirriborroek ez badituzte betetzen merezimendu nahikoak edo ez badatoz bat oinarri hauetan ezarritako baldintzekin. Epaimahaiak hala iritziz gero, sari guztiak edo sariren bat eman gabe utzi ahal izango dira.

Oinarri hauetan aurreikusi gabeko edozein alderdi edo gorabehera ebazteko ahalmena izango du epaimahaiak.

6. Lanak gauzatzea:

Zuhaitzak azaroaren 26tik abenduaren 11ra apaindu beharko dira. Artista bakoitzak aukeratutako lekuan apaindu ahal izango du bere zuhaitza. Horretarako leku egokirik ez badu, Udalak emango du, eta artistak Udalak ezarritako ordutegietara egokitu beharko du.

Finalista bakoitzari 50€ arteko kopurua emango zaio, dekorazioan erabilitako materialaren gastuetarako. Artistak ordaindu beharko du materialaren gastua, eta ondoren, ordainagiriak aurkezturik, Udalak parte-hartzaileak emandako kontuzenbakian ordainduko du gastua.

7. Sariak:

5 sari ezarri dira, kopuru hauekin hornituta:

- Lehenengo saria: 300€ eskudirutan eta 200€ baleetan, ibarreko establezimenduetan kontsumitzeko.



- Bigarren saria: 200€ eskudirutan eta 150€ baleetan, ibarreko establezimenduetan kontsumitzeko.
- Hirugarren saria: 100€ eskudirutan eta 100€ baleetan, ibarreko establezimenduetan kontsumitzeko

El fallo del Jurado será inapelable, notificándose a los galardonados y haciéndose público en enero, en el acto de entrega de premios, que se celebrará si la situación sanitaria lo permite en el Ayuntamiento del Valle de Egüés (se confirmará fecha y hora)

8. Datu pertsonalen babesa:

Parte-hartzaileek baimena ematen dute beren datu pertsonalak Eguesibarko Udalaren fitxategian sartzeko. Datuak lehiaketa hau kudeatzeko, irabazleekin harremanetan jartzeko eta lehiaketarekin zerikusia duen beste edozein gairi erantzuteko baino ez dira erabiliko.

Parte-hartzaileek informazio pertsonalaren egiazkotasuna, zehaztasuna, indarraldia eta benetakotasuna bermatzen eta erantzuten dute. Datuen titularrak datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko eta datuak ezerezteko eskubideak baliatu ahal izango ditu. Horretarako, idatziz eskatu beharko du cultura-kultura@egues.es helbidean.

9. Eskubideen titulartasuna:

Saria onartzen dutenean, irabazleek Eguesibarko Udalari emango dizkiote obrak ustiatzeko eskubideak, eta, zehazki, obrak erreproduzitzeko, banatzeko eta edozein hedatze- eta laguntza-bitartekoren bidez jendaurrean jartzeko eskubidea, besteak beste, material grafikoak, ikus-entzunezkoak, publizitate-bitartekoak, Internet eta erabilera ez-komertzialetarako sare sozialak. Kasu guztietan, obraren egilearen izena adieraziko da.

10. Beste arau batzuk:

Lehiaketan parte hartze hutsak esan nahi du oinarri hauek osorik onartzea eta lehiaketa honetatik eratorritako edozein gai ebazteari dagokionez Eguesibarko Udalak duen interpretazio-irizpidea; beraz, horiek ez onartzeari dagokionez, manifestazioak parte-hartzailea baztertzea ekarriko du eta, horren ondorioz, Eguesibarko Udala berarekin hartutako edozein betebeharrak betetzetik aske geratuko da. Eguesibarko Udalak eskubidea izango du edozein unetan lehiaketa honen mekanikan edo funtzionamenduan aldaketak sartzeko eta/edo alde aurretik amaitzeko, bidezko kausagatik beharrezkoa izanez gero, eta horrek ez du inolako



AYUNTAMIENTO
VALLE DE EGÚÉS
EGUESIBARKO
UDALA



erantzukizunik ekarriko. Hala ere, aldaketa horiek behar bezala jakinaraziko dira web orriaren bidez eta, gertatzen bada, beste bitarteko batzuen bidez. Ahal den guztia egingo da parte-hartzaileei kalterik ez eragiteko.